



Ilustrazioa:
Cristina Fernandez Blanco

hutsa

Eli Carrascosa

1979an Iruñean jaio, baina Bilboaldean bizi da betidanik. 2001ean ekin zion euskara ikasteari. Egun, euskara irakasle dihardu Bilbon. Lehen urtea du Bergarako Idazle Eskolan.

Eli Carrascosa

Paper zuria

Zerbait igarri du besoan. Autobusean doa, irratia la-
gun, buruz dakien paisaiari begira eta erreparatu
gabe. Eta tupustean zerbait sumatu du. Hasieran
ez du ikusi, beix koloreko jakan mimetizatu bai-
tzaio. Baina bertan dago, ezkerreko mahukan pausaturik,
plegu askotan tolestutako papertxo zuria. Zer den ohartu
denean, ez da ausartu zirkinik egiten ere. Azkartu zaizkio
taupadak, kikildu urdaila, bere burua babestu beharko balu
bezalako erreakzioan. Lehergai begitandu zaio, eta ez daki
nola desaktibatatu.

Ondorioztatu du leihoaren eta eserlekuen arteko tartetik
jaurti behar izan diotela, eta saiatu da gogoratzen nor duen
atzean. Perfumeagatik, bere adineko emakumea, pentsatu
du. Agian laguntza behar du, otu zaio. Urrundu du ezke-
rreko aurikularra belarritik, eta ahalegindu da emakume-
aren mugimenduak ikustatzen kristalezko islan. Telefonoz
ari dela konturatu da, eta entretenituta dirudi. Nor, bestela.
Beharbada, ume bat jolasean. Ez du gogoratzen umerik
ikusi izana, baina. Zororen bat akaso, ikaratzeko asmoz.
Izerditan hasi da.

Irratian diote bonba bat bota dutela autobus baten kon-
tra, milaka kilometrora. Ezin izan du kokatu mapan. Ehun
bat pertsona hil omen ditu. Ez ditu gorpu horiek guztiak
irudikatu nahi izan. Eta orduan lotsatuta sentitu da, paper
zuri batek paralizaturik. Lotsak amorrua eman dio, eta
amorruek, adorea: hartu du azkenik papera eskumako es-
kuaz, eta berehala gorde poltsikoan. Ez du atzera behatu,
ez da hain urrun heldu. Begiak itxi ditu. Egokitu du bizkarra
eserlekuan, deskantsatzeko jarrera aproposaren bila. Lane-
tik dator, eta etxera doan arren, lanera doa: ama du zain.
Ordu erdiko bidaia hori da, beraz, eguneko atsedean baka-
rretakoa. Dena den, ezin da lokartu; deseroso samar dago
oraindik, urduri. Ihesbide bat bilatu du telefonoko dialean,
kanta batek denbora-bidaian eraman duen arte. Abestu
ditu bere artean hitz bakan batzuk, dantzan ibili da behia-
lako gomutekin.

Eta akordatu da berriro paper zuriaz.

Eskua sartu du patrikan. Bertatik atera gabe, bueltak
eman dizkio paperari ermamiekin, zabaltzen eta ixten, to-
les bakoitza zenbatuz. Bitartean, ahalegindu da gogoratzen
ilaran pilatutako aurpegiak. Herriko pare bat salbu, beste
guztiak ezezagunak egin zaizkio. Gizon batez oroitu da az-
kenik. Eta urduriago jarri. Agian gizon lerden hori... Bai, gi-
zonak begiratu egin dio, behin baino gehiagotan. Papera
oraindik poltsikoan, zer mezu gordetzen ote duen hasi da
imajinatzen gero. Hitzordu baterako proposamena, aitor-

pen lotsatia, edo telefono-zenbaki bat. Bere sakelakoa be-
gietara hurbildu du orduan, eta argazki-kameraren ikonoa
ukitu erakusle izerditsuz. Irudiari buelta emanda ispilu
gisa baliatu du. Argi faltak ez dio utzi gehiegi ikusten; hala
ere, ez zaio inporta izan. Begi-zuloak iluntasunean ezkuta-
tuta, bere irribarrerik onena atera du, gaur, autobus horre-
tako norbaitentzat erakargarria izan daitekeelako itxaro-
penaz. Senarra zena etorri zaio burura, alabaren deia
pantailan agertzearekin batera.

Ez du hartu nahi izan. Azken batean, badaki zer esango
dion, zer eskatu, zer agindu. Ez du gogorik. Nahiago du
arreta gelditzeko eskaerako errotuluan jartzea. Kendu ditu
aurikularrak, tentetu da eserlekuan. Azken hamar minu-
tuko tartea falta da bere geltokira heltzeko, eta iruditu zaio
zerbait argi dezakeela adi ibiliz gero. Baina oraingoz ez da
ezer gertatu; aurreko aldean bidaiatu duen emakume bat
jaitsi da lehen geralekuan, besterik ez.

Nahiko lukeen baino arinago doa autobusa; berehala iri-
tsiko dira, eta erabaki beharra du. Atzazalak jaten hasi da.
Dituen aukera guztiak darabiltza orain. Eta zerbait du argi:
ez du koldarra izan nahi. Sarritan damutu zaio horregatik;
zenbat aldiz egin dion men beldurrari bere bizitzan, zen-
batetan isildu, zenbat aukerari uko. Gogaituta dago gatibu
sentitzeaz. Gaur ausarta izango da, behingoz.

Heltzen ari dira. Leiho aldeko eserlektatik ondokora igaro,
gelditzeko botoia sakatu eta emeki-emeki zutitu da korri-
dore erdian kokatu arte. Kementsu sentitu denean, atzeko
aterantz abiatu da eskuak bi aldeetako jarleketan bermat-
uta, oreka ez galtzeko. Ilarako gizonaren bisaia bilatu du,
orain bere eskumako aldean. Ikusi bezain pronto, bihotzak
salto egin dio osterara ere. Irakurtzen doa burua apur bat
makurtuta, sei esertoki atzerago, autobuseko azken partean.
Zalantza egin du une batez ate albora ailegatuta. Arnasa
sakon hartu, listua irentsi eta bidearen azken zatiari ekin
dio, entseatutako irribarrea ahoan, soa gizonarengandik
aldendu gabe. Haren parera iritsi denean, eskua poltsikoan
sartu, papera ukabilean bildu eta begi aurreraino luzatu
dio, aurpegiko keinua batere aldatu gabe. Zerbait edo nor-
baiten presentzia igarrita, gizonak itzuli dio begirada az-
kenik, eta papera hartu behar duela ulertu, mututurik, be-
giak zabal-zabal.

Autobusa gelditu denean, jiratu eta atzeko atera bueltatu
da. Eskailerak astiro jaitsi ditu, ez behaztopatzeko. Oinak
errepidean jada, prestatu gabeko irribarre txikia labaindu
zaio, eta harrotasunak ematen duen ibilera irmo eta doto-
reaz abiatu da presa barik etxerantz.